

PLAZA BERRI

ZIZURKILGO HERRI ALDIZKARIA

13-12-20 9.ALEA



AIZTONDO
Zerbitzuen Mankomunitatea

Zizurkilgo gizarte zerbitzuen atea

4. ORR. ►►

2013ari
agur

2. ORR. ►►

Zizurkil Goian
hobekuntzak

9. ORR. ►►

Kirol astea
argazkitan

11. ORR. ►►

EDITORIALA

2013ari agur

Joan dira beste hamabi hilabete, 2013a azken egunetan da. Urte zaila izan da hainbat aspektutan. Iritsi da balantzea egiteko garaia.

Atez atekoari lotutakoa izan da urteko polemika handia. Aldaketa kolpekoa izan zela onartuta ere, gaur egun ikusten ari gara atez ate egiten dutenek %85 birziklatzen dutela. Zalantzarik gabe, hori da bidea. Borondatea da behar den guztia. Zoritxarrez, gehien birziklatzen duen sistemaren aurka sekulako kampaia egin zuen alderdi jakin batek, aldaketa baten aurrean jendeak zituen ohiko beldurrak indartuz, Udalarik kalte egitea helburu hartuta. Guk ere ez genuen dena ondo egin, hori ziur, baina zintzo jokatu genuen. Eta agindutako betetzea gustatzen zaigunez, hondakinen bilketa sistema hobetzeko prozesua martxan da berriro. Parte hartu eta eman zuen iritzia.

Norabide berean, 2014ko erronketako bat parte hartze ordenantza onartzea izango da. Aurrerantzean herritarrek parte hartzeko tresna gehiago izatea dugu helburu. Ea akordio zabal baten bidez onartzen dugun.

Ekonomia

2013a bereziki gogorra, arlo ekonomikoan izan da. Gogor, oso gogor kolpatu du Zizurkil. Perot-en albistearekin hasi zen urtea eta Marie Brizard-ekin amaitu. Zorionez

Marie Brizard-eko langileek akordioa lortu zuten azken orduan. Gauza bat argi dugu: Alboan izan gaituzte eta izango gaituzte langileek. Eta argi salatu behar da: Kasu hauetan errudun nagusia ez da krisia, eskuineko politikak baizik. Erreforma laboralari esker estatuan kaleratzea merkeagoa delako itxi nahi dituzte multinazionalak hemengo lantegiak. Udalean ere egoera ekonomikoa gordina da. Baina pixkanaka ari gara zulotik ateratzen. Gauzak ondo egiten ari garela datuek erakusten dute. Iritsi ginenean, 2011 amaieran, 2.800.000 euroko

zorra zuen Udalak bankuekin, eta beste 450.000 euroko zorra Aldundiarekin. Gaur egun esan dezakegu miloi bat eurotan murriztu dugula zorra. Aldundiarekin zorrak kitatu dira, fakturak egunean daude eta 2.200.000 euroko zorra dugu bankuekin. Krisi garai gordin honetan erakundeak zorpetzea litzateke logikoa, baina beste batzuk Udala garai honetan hondoratu izanaren ondorioak ordaintzen ari gara.

2014ari ilusioz ekin nahi diegu. Proiektu asko gauzatzen ikusiko ditugun urtea izango da: Plaza amaituta, futbol zelaila berritzea, Zizurkil goian hainbat hobekuntza.... Aurrerakotzat estuak dira baina aurtun ere parte hartzearen bidetik jorratu nahi ditugu. Izango duzue deialdien berri. Eguberri zoriontsuak eta urte berri hobea opa dizu Zizurkilgo Udaltaldeak.

**2013ari agur**

La puesta en marcha de la recogida de residuos puerta a puerta ha sido uno de los grandes retos de este 2013 que está llegando a su fin. Pese a la campaña realizada contra este sistema, los y las zizurkildarras que se han unido al sistema han alcanzado cotas de reciclaje del 85%. Tal y como se adelantó, transcurridos unos meses, ahora se pondrá en marcha el proceso de mejora del sistema. En esta línea, unos de los retos de 2014 será apro-

bar la ordenanza de participación ciudadana.

Este 2013 que se acaba ha sido especialmente duro en lo económico. El año comenzó con el cierre de Perot y termina con el conflicto laboral de Marie Brizard. El Ayuntamiento, por supuesto, denuncia las políticas de despidos para despedir a las multinacionales y muestra su solidaridad a los trabajadores y trabajadoras.

La situación económica del Ayuntamiento también es crítica, pero poco a poco se están dando pasos para salir del agujero en el que los anteriores gestores nos habían metido.

Pese a todo, comenzamos este 2014 esperanzados y con muchos proyectos entre manos. El presupuesto es ajustado, pero se pretende perfilar junto con los vecinos y vecinas.

El Gobierno municipal les desea una felices fiestas y un próspero año nuevo.

KRONIKA

Hondakinen bilketa hobetzeko prozesua martxan

Ekainean agindu bezala, iritsi da hondakinen bilketa sistema berria hobetzeko prozesua.

Ander Santesteban ingurumen teknikariak azaldu ditu nondik norakoak: "Helburua argia du prozesu honek. Bilketa sistema berria baloratu eta hobetzea. Egin ditugun akatsetatik ikasi, eta hobetzeko pausuak ematea". Lanketa bat baino gehiago egingo dira. "Hainbat fase izango ditu prozesuak: Batetik, komertzioetara banan bana joaten ari gara euren kezka eta proposamenak jasotzeko. Bestetik, herritarrei emango zaie hitza. Horretarako etxe guztietara galdetegi bat banatu da. Bertan iritzia eman ahal izango dute zizurkildarrek eta ondoren iritzi hori erraz helarazteko 5 postontzi jarri ditugu herrian zehar, Aurrerako Udaltaldean, Dya supermerkatuan, Ogi zuri okindegian, Egarri tabernan eta Zizurkilgoian, Iriarte kultur etxean".

Batzarrak

Urtarrilaren hasierara arte egongo dira postontziak jarrita. Ondoren jaso eta zizurkildarrek esanari jarraituz, planteamendu bat egingo da. Planteamendu hori batzarretan aurkeztuko da bertan azken ekarpenak jasotzeko. Santestebanek zera gehitu du: "Argi esan behar dugu, Zizurkil inoiz baino gehiago ari dela birziklatzen eta inoiz baino errefusa gutxiago sor-

tzen dela". Oraindik bat egin ez duten herritarrei lehen zigor espedienteak ireki zaizkie,

"helburua ez da isuna, birziklapenarekin bat egin dezaten lortzea baizik".



Danena zelai ondoan prestatzen ari diren gunea.

En marcha el proceso de mejora de la gestión de residuos

Como se adelantó en junio, el Ayuntamiento de Zizurkil ha comenzado a recabar la opinión de los y las zizurkildarras en torno al nuevo sistema de recogida de residuos. "El objetivo es claro, valorar y mejorar el sistema", señala el técnico de medio ambiente, Ander Santesteban. El proceso consta de distintas fases. "Por un lado, estamos trabajando con los comercios para escuchar sus quejas y propuestas. Por otro lado, se ha repartido un cuestionario en todos los hogares.

En el citado cuestionario, se podrá opinar sobre la gestión, proponer mejoras... Una vez rellenados, los cuestionarios se podrán depositar en los buzones que se han colocado en distintos puntos de Zizurkil: El supermercado Dya, la cafetería Ogi Zuri, el bar Egarri, las oficinas municipales de Aurrera o la casa de cultura Iriarte". A principios de enero, se recogerán los cuestionarios y tras analizarlos, se convocarán unas reuniones para rematar el proceso participativo.

Elbarrenan, auzokonposta egiteko aukera

Lehen auzokonposta gunea izango du Elbarrenan epe motzean. "Zizurkildar askok gogoa zuen asfaltatik baina Udalak ez du lur-sail nahikorik eta jabetza pribatuko eremuetan jartzeak kezka sortzen zuen". Azkenean, Danena zelaiaren ondoko lurretan jarri da auzokonposta gunea. "Konpostatze komunitarioak gure ondoan, aukera ugari emango dituen beste eremu bat prestatuko da da. Batetik,

konposta egiteko behar den materia lehorra hartzeko balioko du. Landare eta kimaketa hondakinak bertan botatzen direnez, trituradora batekin txikitu eta herritarrentzat eskuragai jarriko dira. Bestetik, egindako konposta ere bertan gordeko da, eta herritaren baten etxean egindakoa ekarri nahi badu aukera izango du. Bai konposta eta bai materia lehorra edonork ekarri edo hartu ahal izango du oinez edo kotxez bertara sartuta". Auzokonposta egiteko interesa duenak, Zizurkilgo Udalerari joan behar du. "Herritar askok eman dute izena jada, baina badago oraindik gehiagok egiteko aukera".

ELKARRIZKETA

“Gizarte zerbitzuetara jotzen dutenen kopuruak nabarmen egin du **gora** azken urteetan”

Anabel Balerdi Zizurkilgo gizarte langilea da. Aiztondo zerbitzuen mankomunitatearen baitan, zizurkildarrek dituzten arlo askotako gizarte premiei erantzuten die. Bere lana hobeto ezagutu eta gaur egungo egoeraren berri jakin nahi izan du Plazaberrik.

Hasteko koka gaitzen, azaldu dezagun zer den Aiztondo zerbitzuen mankomunitatea...

Jadanik 20 urte pasatu dira eskualdeko herri batzuk, Zizurkilgo Udalak tartean, gizarte zerbitzuak eskaintzeko helburuz elkartzeko beharra ikusi zutela. Horrela 1993an, Aduna, Alkiza, Asteasu, Larraul eta Zizurkilgo Udalek *Ernio behea gizarte zerbitzuen agrupazioa* sortu zuten.

1996an izena aldatu zitzaion eta *Aiztondo gizarte zerbitzuen elkarte*a osatu zuten aipatutako udalek. 2000. urte amaieran beste lege for-

ma bat eman zitzaion, gaur egungo *Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatea* izatera pasaz. Orduan, 4 herri osatu zuten mankomunitatea: Aduna, Alkiza, Larraul eta Zizurkil. Mankomunitatearen helburu nagusienetakoa hasieratik argia izan da: Herritar guztiek zerbitzu (gizarte zerbitzu, kirola, kultura) aukera berberak izatea.

Gizarte zerbitzuen alorra, hain da zabala...

Adinekoan zaintza, familien zaintza, adin txikikoekin egiten ditugun programak, diru laguntzak... Adar asko har-

tzen ditu, bai. Programa ugari dugu martxan. Mendekotasun legearekin batera, laguntza ekonomiko bat baino gehiago jarri ziren mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko, bai familiakoa zaintzailea denean edo kanpoko bat kontratatzen denean. Momentu honetan 58 zaintzaile ofizial ditugu Zizurkil. Hain zuzen ere zer

«Bertakoa eta emakumea da guregana gehien jotzen duena»

behar dituzten aztertu berri dugu eta aste hauetan alde emozionala lantzeko formazio saioak egin ditugu Atxulondo kultur etxean. Aiztondoko 19 zaintzailek hartu du parte. Horrez gain Zizurkilek pisu babestu bat du gaitasunez ondo dauden adinekoentzat, hain justu gauden egoitzaren gainaldean. Bertan, 5 plaza daude. Zizurkildarrek dute lehentasuna eta urte asko daramatza beteta. Bestalde, adin txikikoei begira programa zabala dago, kale hezitzaile programa dugu Zizurkil. Beraz, diru laguntzez gain, beste zerbitzu ugari eskaintzen dira.



Eneko Dorronsoro harrerako arduraduna eta Anabel Balerdi gizarte langilea.

Diru laguntzetan arreta jarri, krisia hasi zenetik, gora egin al du eskaerak?

Dudarik gabe, bai. Zizurkil ez da salbuespen bat. Gizarte zerbitzuen premia

igo egin da eta diru laguntza eskaerak ere bai. Diru laguntza ezberdinak daude.

Bata, diru sarrerak bermatzeko errenta litzateke, 2011 arte udal zerbitzuen bidez

bideratzen zena. Urte horretan, Eusko Jauriaritzak Lanbiderekin lotu zuen errenta hori eta baldintzak gogortu zituen. Beraz, diru laguntza honi dagokionez, jendea

galdezka etortzen da baina Lanbidera bideratzen ditugu. Informazioa badugu, hala ere. Zizurkil 67 familiak jasotzen dute gaur egun diru sarrera bermatzeko erren-

“Ha aumentado significativamente el número de personas que acude a los servicios sociales”

Anabel Balerdi es la trabajadora social que la mancomunidad Aiztondo tiene para Zizurkil. “La mancomunidad como tal se creó en el año 2000 pero antes, en sus inicios, fue Ernio behea gizarte zerbitzuen agrupazioa. Esta sociedad se fundó en el año 1993 por los ayuntamientos de Zizurkil, Asteasu, Aduna, Larraul y Alkiza. El objetivo era

claro, “que todos los ciudadanos y las ciudadanas tuvieran los mismos servicios”.

Diversos servicios

Cuando hablamos de servicios sociales, el abanico es amplio. “El cuidado de las personas mayores, las familias, los proyectos con los menores de edad, las ayudas para personas

en situaciones de necesidad, las ayudas económicas...”, señala Balerdi. En cifras, hoy en día, 58 familias de Zizurkil reciben ayudas para el cuidado de personas mayores. Si hablamos de ayudas económicas, hay tres reseñables. “La renta básica es la principal. Antes lo gestionábamos nosotros y lo aprobaba la Diputación. Hoy en día se gestiona a través

de Lanbide”. En 2011 el Gobierno Vasco cambió el modelo de gestión y endureció el acceso a la renta básica. “Por ello, la Diputación de Gipuzkoa aprobó otra subvención para ayudar a las personas que antes recibían la renta básica y fueron excluidas tras el cambio”. Dicha subvención es la llamada ayuda para la garantía de ingresos. Por último,

hay una tercera rama, las ayudas de emergencia social. “El Gobierno Vasco realiza un importe a los ayuntamientos para estas ayudas. La de emergencia social, es una ayuda puntual para las personas que normalmente no reciben la renta básica, pero que pueden tener en un momento dado problemas para hacer frente a sus gastos básicos”. Hoy en día en Zizurkil, 67 familias reciben la renta básica, 8 la ayuda de la Diputación y 29 han recibido

las de emergencia social.

Debido al aumento de la demanda, la partida del Gobierno Vasco ha sido este año muy insuficiente. “Este año hemos recibido 19.267 € para Zizurkil. Como la mayoría de municipios, hace tres-cuatro meses ya se había utilizado dicha cantidad. Ante ello, el Ayuntamiento de Zizurkil decidió seguir ayudando a las familias en emergencia social y ha destinado ya 4.500€ más de su presupuesto”.

El perfil

El perfil de las personas que acuden a los servicios sociales es claro: “Mayoritariamente mujeres y nacidas aquí. Se habla mucho de las personas extranjeras pero los datos lo desmienten. Las ayudas a personas mayores o dependientes los reciben mayoritariamente familias nacidas en Euskal Herria. En cuanto a la renta básica tan solo 22 de las 67 núcleos familiares que reciben las ayudas son en

origen extranjeras.”

Sobre el futuro de los servicios sociales, Balerdi lo tiene claro. “Creo que cada vez vamos a tener más trabajo. No sólo por la crisis. Cada vez vivimos más años, hay más mayores, los lazos familiares se han debilitado...”. El que quiera más información puede acudir a las oficinas de la mancomunidad, en la calle Muñoa 36 o llamar al teléfono 943.69.39.30. Más información en www.zizurkil.eu.

ELKARRIZKETA

ta. Bada beste diru laguntza bat, 2012an Gipuzkoako Aldundiak bultzatu zuena. Izan ere, baldintzak gogortzeak oinarritzko errentatik kanpo utzi zituen hainbat kolektibo, eta horiei erantzun nahian, diru sarrerak bermatzeko laguntza izeneko jarri zuen aldundiak. Gipuzkoan soilik dago laguntza hori. Horren barnean, 8 familia ditugu Zizurkilen. Eskura dugun hirugarren diru laguntza lerroa berriz, gizarte larrialdietako laguntza da, Jaurlaritzak dirua eman eta Udalek kudeatzen duguna. Laguntza puntuala da, une jakin batean, oinarritzko beharrei aurre egin ezin dieten pertsonen ematen zaien laguntza: Alokairua ordaintzen laguntzeko, mantenu gastuei aurre egiteko, oinarritzko gastuak egiteko, ... Beti aurrekontu baten eta gastu zehatzen gainean ematen den laguntza da.

Jaurlaritzak ematen zuen larrialdietako laguntza hori herri askotan amaitu dela irakurri izan dugu. Zizurkilan ere bai?

Bai, Zizurkilen ere amaitu da. Aurten 19.267 € eman zituen Jaurlaritzak baina egoera gordin hau tarteko, duela hiruzpalau hilabete amaitu egin zen diru hori. Horren aurrean, Udalak erabaki du eskaerei aurre egiten jarraituko dela. Zizurkilgo Udalak 4.500€ gehiago jarri ditu bere aurrekontutik gizarte larrialdietako laguntzei eusteko. Urte amaierarako 6.000 € gehiago Udalak jarriko dituen ustea dugu. Gizarte larrialdi lagun-



«Udalak 4.500€ gehiago jarri ditu bere aurrekontutik laguntzei eusteko»

tza hori eskatu dutenak, aurten, 29 familia izan dira.

Zein da zuengana jotzen duenaren profila?

Datu zehatzik eduki ez arren, gehien gerturatzen dena bertakoa eta emakumea dela uste dut. Oraindik emakumeak errazago gerturatzen dira gure bulegoetara. Eskolara joan behar denean ere emakumeak joan ohi gara gehiago, familiaren babesle izaera hori emakumeengan gehiago dagoela esango nuke. Profilaz ari garelarik, atzerritarren inguruan asko hitz egiten da baina datuek ez diote hori. Adinekoen zaintzan edo familiaren zaintzan onuradun gehienak bertakoa dira. Eta diru laguntzetan ere bai. Diru sarrerak bermatzeko erren-

ta jasotzen dutenetatik 45 familia bertakoa dira, 22 dira atzerritarrak. Larrialdiko laguntzetan berriz, erdi eta erdi dira. Atzerritar kopurua hor egonik ere, ez da egia eurak direnik gehiengo.

Herritarrentzat azken pausua al da gizarte zerbitzuetara jotzea? Lehenago jo behar al lukete zuengana?

Beharra sentitzen duenean etortzen da jendea. Egia da batzuk nahi baino beranduego iristen direla, ordura arte pentsatzen zutelako aurrera aterako zirela. Esan behar da gu garela lehendabiziko atea. Aldundiaren edo beste erakunde baten eskumenekoa izan arren eskatzen den zerbitzu edo laguntza jakin hori, guk bideratzen dugu, jendea guregana dator lehenik. Sumatzen dugu urtez urte jendea errazago gerturatzen dela guregana, bereziki zerbitzuren bati lotuta, adinekoen zaintza edo antzekoak. Diru laguntza bat zuzenean eskatzea oraindik askori kostatzen zaio.

Etorkizunera begira zer?

Eskaerak gora egingo dutela aurreikusten dut. Azken finean, ez da krisia bakarrik. Krisiak eragina du dudarik gabe, baina gizarte zerbitzuen eskaeraren igoerak beste faktore batzuk baditu: Geroz eta urte gehiago bizi gara, adinekoen kopuruak gora egin du, familia loturak ez dira hain sendoak... Kontua zera da: gure lana ez dela ikusten beste arloetan (adb.: hirigintza,.....) ikusten den bezala.

Zer bide dute zizurkildarrekin zuengana jotzeko?

Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatearen egoitza Zizurkilgo Muñoa kalean dago, 36. zenbakian, Azken portu auzo berriaren gainean. Bulegora etortzeko aukera ere badago. Bessela, telefonoz 943.69.39.30 zenbakian. Emailaz, aiztondo@udal.gipuzkoa.net helbidean. www.zizurkil.eu helbidean dago argibide gehiago.

Janari bankua izango du Zizurkilek

Familien eskaerari erantzunez, proiektua abian jarri du Zizurkilgo Udalak.

“Geroz eta familia gehiago daude hilabetea pasatzeko zailtasunekin, eta gora egin dute ea janaririk banatzen dugun galdezka etorri direnen kopuruak”, azaldu du Anabel Balerdi gizarte langileak. “Lehen Loiolan edo Lasarten banaketak egiten zizuten eta zizurkildar batzuk bertara joaten ziren. Baina gero, haiek ere euren herrira mugatu zuten banaketa eta aukerarik gabe geratu ziren. Horren aurrean aurten hasi ginen planteatzen ea janari bankua sortzea bideragarria ote zen”. Nerea Lizarraga ongizate zinegotziari egin zion proposamena Balerdik. “Hainbat aspektu aztertuta, aurrera egingo dute. Janari bankuaren kasuan, hori ez da hain erraza janari bila joan behar

proiektuen bidez gauzatzen da hori”, aipatu du Lizarragak. Horrela, Zizurkilek martxan du egitasmoa. “Urriari egin genuen eskaera proiektuan sartzeko, dokumentazioa eta gutxi gora beherako kopuru bat bidaliz. Gure datuen arabera, 72 familia ditugu Zizurkilen baldintzak betetzen dituztenak. Ea janari bankuan sartu nahi duten galdetu diegu. Erantzun ia denak baiezkoak izan dira”, azaldu du Balerdik.

Konfidentzialtasuna

Konfidentzialtasunari eustea dute helburu. “Gizarte zerbitzuen datuak konfidentzialak dira. Eta horrela izan behar dute. Janari bankuaren kasuan, hori ez da hain erraza janari bila joan behar

baitute familiek”. Udaletik orde, banaketa konfidentzialtasun osoz egiteko konpromesua hartu dute “Bollondresak beharko ditugu janaria iristen denean antolatzen. Zenbaki bat izango du familia bakoitzak eta hari zuzendutako janari kopurua prestatu beharko da. Baina gero, banaketa Udal barnetik egingo da konfidentzialtasuna bermatzeko”, zehaztu du Lizarragak.

Urtean hirutan

Zizurkilgo udalak janaria urtean hirutan banatzeko eskaera egin du. Honenbestez, irauten duten elikagaiak izango dira banatuko direnak, oinarri oinarritzko bermatzeko. “Behin Oiarzungo zentraletik abisatzen digute-

nean prest daudela, beharra dutenen kopuru zehatza bidaliko diegu, hau da, familia kopurua eta kide kopurua bakoitzeko”. Gauza bat argi utzi nahi izan du Balerdik. “Janari bankuko onuradun izateko baldintza batzuk bete behar dira eta ditugun datuen arabera osatzen da zerrenda”. Urtarilean izango da Zizurkilgo janari bankuaren lehen banaketa. “Lehen banaketa laster egingo da eta nola funtzionatzen duen ikusiko dugu”, zehaztu dute.



Zizurkil tendrá su propio banco de alimentos

Ante la demanda de las familias, el Ayuntamiento ha puesto en marcha el proyecto. “Cada vez eran más las familias que nos preguntaban si no repartíamos alimentos. Ante ello empezamos a analizar si era viable poner en marcha un banco de alimentos”, explica Anabel Balerdi. La trabajado-

ra social habló con la concejala de servicios sociales, Nerea Lizarraga. “Tras analizarlo, decidimos empezar a trabajar en ello. Es una forma práctica de ayudar a los que menos tienen”, explica Lizarraga. En octubre se realizó la petición de entrar en el proyecto y esperan que en enero se pueda ha-

cer el primer reparto. “Según nuestros datos, hay 72 familias en Zizurkil que cumplen los requisitos. Les hemos preguntado si quieren ser los beneficiarios. Hay que dejar claro que sólo los que cumplen unos requisitos serán introducidos en la lista”, explica Balerdi. En Zizurkil el reparto se realizará

tres veces al año. Por ello, los alimentos que se repartan serán duraderos y muy básicos. Se necesitará la ayuda de voluntarios para preparar los lotes de cada familia. “Eso sí, el reparto se realizará desde los servicios sociales, para garantizar la confidencialidad”, han remarcado.

KRONIKA

Futbol zelai berria, egia izatetik pausu bakarrera

2014an futbol zelai berritua izango du Zizurkilek

Joan den azaroaren 25an sinatu zuten futbol zelaia berritzeko finantziario akordioa Danena Kirol Elkartek, Zizurkilgo Udalak eta Gipuzkoako futbol federazioak. "Honela, aurrez Danenarekin sinatu genuen akordioak zioen bezala, federazioak lanen herena finantzatuko du. Eskerrak eman behar dizkiogu erakutsi duen borondateagatik", azaldu du Joxe Mari Luengo alkatea. Luengok argi du federazioak ulertu duela Tolosaldeko egoera. "Azkenean zelai artifizialaren faltak, eskualdean bakarrak egoteak, gure haur eta gazteen aukerak mugatu ditu orain arte."

Aldundiarekin negoziatzen

Une honetan aldundiarekin ari da negoziatzen Udala, hark lanen beste herena har dezan. "Egia esan, akordioa aurreratu dago, epe motzean itxi dugu. Joseba Sarriegi kiroletako arduradunarekin hainbat bilera egin



Manuel Gonzalez, Joxe Mari Luengo eta Juan Luis Larrea.

ditugu. Gainera, badirudi aldundia prest dagoela zelaiaren herena ordaintzeaz gain, argiteria eta aldagelen lanen erdia beregain hartzeko". Futbol zelaian belar naturala kendu eta artifizialeko zelai berria egiteak 300.000 euroko kostua du. Enpresa bat baino gehiagorekin jarri da harremanetan Udala. "Epe motzean lanak esleitzeko pleguak aterako ditugu. Data aldetik, gure asmoa argia da: Maiatzean hasi eta irailerako

amaituta egotea futbol zelai berritzeko lanak. Horrela ahalik eta gutxien eragin nahi diegu bertan futboleko dabilzane", zehaztu du Luengok. Aurrez aipatu moduan, gaur egun dauden aldagelak ere berrituko dira. "Orain daudenak gela behar dituzte. Horretarako zer egin ari gara aztertzen. Kontuan izan behar dugu inbertsio hau epe jakin baterako aurrerakosten dituela Udalak. Oraindik ez dugu kontu hori erabaki.

Enpleguaren alde kalean



Ehunka pertsona elkar-tu ziren joan den abenduaren 14an Tolosan, eskualdeko hainbat enpresek bizi duten egoera salatzen. Tartean ziren Marie Brizard-eko langileak ere. Zizurkilgo alkatea eta hainbat zinegotzi ere manifestazioan izan ziren. "Langileen ondoan egotea dagokigu. Eureri entzun eta behar dutenean laguntzea", azaldu du Joxe Mari Luengo alkatea. Hamaita egun greban egon ondoren Maria Brizard-eko langileek enpresa ixtea eragotzi duen akordioa lortu dute.

ALBISTEA

Goiko herrigunean hainbat hobekuntza martxan

Aldundiarekin lankidetzan burutzen ari diren hobekuntzak dira



Zizurkil Gora bidean, errepide bazterrean lur mugimendua hasi dela ohartuko zineten hainbat herritar. Joxe Mari Luengo alkatea eman dizkigu lan hauen inguruko argibideak. "Aldundiak bazituen diru laguntza batzuk eta ikusi genuen hau izan zitekeela proiektua gauzatzeko momentua. Izan ere, inguru horretan hainbat arazo daude. Lehenengo, urak ondo bideratu gabe egotearen erruz,

errepidean putzuak sortzen dira. Horrez gain, kotxeek abiadura handia hartzen dute. Gainera badaude beste hiru ezaugarri: Ur zikinen saneamendu lanak amaitu ostean, oinezkoentzako bidea plazaraino ez iristeak ez zuela logikarik ikusten genuen, eta gainera, oinez errepidetik ibiltzeak bere arriskuak ditu. Argiteria ere zaharkitua dago inguru horretan guztian. Eta amaitzeko, aparkaleku-

ko lurra jartzeko beharra ere badago. Beraz, lan guztiak proiektu berean sartzen ahalgintu gara". 87.000 euroko aurrekontua dute dagoeneko hasi diren lanek eta otsail-martxorako amaituta izatea aurreikusten da.

Bi norabidetako bidea

Aparkalekuko lurra jartzearekin bat, Udal gobernua aspalditik zuen asmo bat gauzatu du. "Eliz atzea bi norabidetarako jartzeko lanak egingo ditugu. Alegia, plaza-tik kotxe trafikoa murrizteko helburuz, errepidea zabaldu eta bi norabideetan jarriko dugu. Horrela eliz atzeko azoetatik edo aparkalekutik iristen direnek ez dute plazatik igaro beharko". Argiteria ere berrituko da. "Lur azpian doan kableatua oso zaharra da eta dena berria sartuko dugu, bizpahiru farola berri jarri". Aparkalekua hormigonatu

gingo da. "Ez da hasieran guk genuen asmoa baina diruak ez du bestetarako ematen. Hala ere, txukun geratuko dela uste dugu".

Haur parkearen berritzea



Legealdi hasieran kendu zuten Udalak San Millan eskola ondoko aurrefabrikatuak. "Inbertsio bat egin genuen horiek kentzeko eta geroztik parkea hutsik dago, lurra puskatuta... Kasu honetan ere diru laguntza bat baliatu nahi dugu oinarrizko zenbait gauza egiteko: Nagusia, lurra berdinu eta lur berria jartzea izango da kautxozkoa. Horretarako zuzenbat bota behar izan dugu, arazo handiak genituelako bestela lurra jartzeko", azaldu du alkatea. Kontuan hartu behar da Zizurkil goiko jolas parke bakkarra dela eskola ondokoa. "Behin lurra jarri, aztertuko dugu zer jolas jarri gerezakeen baina behintzat oinarrizkoa eginda egongo da".

El nuevo campo de futbol, a un paso de convertirse en realidad

El pasado 25 de noviembre se firmó el convenio de financiación del nuevo campo de futbol de Zizurkil. Danena Kirol Elkartea, el ayuntamiento de Zizurkil y la Federación Gipuzcoana de Fútbol rubricaron un acuerdo por el que,

"como decía el acuerdo que suscribimos anteriormente con Danena, la federación se hará cargo de un tercio de la financiación. Han entendido que la falta de un campo de futbol artificial en nuestra zona mermaba las opciones

de nuestros niños y jóvenes", señaló el alcalde Joxe Mari Luengo. Tras lograr el sí de la federación, el ayuntamiento está negociando con la diputación. "El acuerdo está cerca. Además, parece que la Diputación tiene voluntad

de asumir la mitad del gasto de la electrificación y vestuarios, además de un tercio del gasto para la construcción del nuevo campo de futbol". Si las negociaciones llegan a buen puerto, el próximo mayo comenzarán las obras.

Mejoras en el Zizurkil Goia

Acaban de comenzar las obras en el acceso y el aparcamiento de Zizurkil Goia. "Con la ayuda económica de la Diputación se pretende responder a diversos problemas. En el último tramo de la carretera hacia la plaza, hay problemas por la

mala canalización de las aguas. Además, entendemos que no tiene lógica que el camino peatonal no llegue hasta la plaza. A eso se le añade la necesidad de acondicionar el aparcamiento, y que el cableado eléctrico subterráneo estaba obsoleto...", ha

explicado el alcalde Joxe Mari Luengo. El ayuntamiento ha elaborado un proyecto integral para esa zona con un presupuesto de 87.000 €. Se espera que las obras hayan terminado para finales de febrero o principios de marzo.

ALBISTEA



Emakumeak korri egitera bultzatzeko ekimena

Urtarrilaren 10ean hasiko dira emakumeei zuzendutako entrenamendu gidatuak.

Hitzordua:

Eguna:
Urtarrilak 10
Ordua:
18:30
Lekua:
Otañoko frontoia

Azken urteetan ohiko bihurtu dira Gipuzkoako herrietan emakume korrikarien taldeak. Talde hauen asmoa emakumezkoak korrika egitera animatzea da. Finean, korrika egiten hasi nahi duenari egitura bat es-


kaintzen zaio. Beste era batera esanda, korrika bakarrik aritu beharrean kirol hau egiteko lagun talde bat da eskaintzen dena. Horretaz gain, talde hauek entrena-tzaile edo gidari bat izaten dute, emakumea hau ere.

Bada, Zizurkilgo Udalak ere herrira ekarri du ekimen hau. Kirol astearen baitan egin du deialdia. Eguna jarria dago: urtarrilaren 10a. Orduan izango da lehen entrenamendu gidatua. Hortik aurrera, astean behin egingo dituzte saioak; ostirale-tan. Bertaratzten den emakume taldearen gidari eta aholkulari berriz, Aitziber Ibarbia korrikalari zizur-

Nueva iniciativa para animar a las mujeres a correr

El departamento de deportes del ayuntamiento de Zizurkil ha puesto en marcha una iniciativa, cuyo objetivo es animar a las mujeres a correr. Se trata de crear un grupo de mujeres, que tengan interés de empezar a practicar este deporte. No es preciso apuntarse en ningún lugar ni pagar

ninguna cuota. Simplemente hay que acudir a la cita acordada para el 10 de enero a las 18:30 en el frontón de la escuela Otaño. La atleta zizurkildarra Aitziber Ibarbia será la entrenadora. "No hay que tener buen nivel, comenzaran desde cero", aclara Aratz Alkorta concejal de deportes.



Kirolari onena aukeratzeko modu berria

Kirol batzordeak modu berritzailean aukeratu nahi du 2014ko kirolari onena.

Udala eta herriko kirol taldeak elkartzen dituen batzordeak proposamen berria egin du datorren urtean kirolari onena aukeratzeko. "Kirolaria izendatzeko, bai kirolari eta baita herritarren parte hartzea sustatu nahi izan dugu, eta horretarako, herritar kirolarien argazkiak bil-tzea pentsatu dugu", azaldu du Aratz Alkorta kirol zinegotziak. Argazki horiekin Elbarrenako festetan erakusketa bat egingo da eta herri bozketaren bidez,

12 argazki hoberenak aukeratuko dira, 2015eko egutegia egiteko. Kirolari onena berriz, "argazkietako kirolariak eurek aukeratu dute, beraien artean bozketa eginez".

Omenaldi-afaria

2014ko kirolari onena izendatzen dena Urkamendi elkartean egingo den afari bidez omenduko da. "Herritarrak eta kirolariak elkartzea nahiko gurekin afaria", zehaztu du Alkorta. Festetan argazki onena aukeratzeko bozketan parte hartzen duten herritarren artean berriz, bi lagunentzako afariak zozketatuko dira.

Kirolari onena aukeratzeko sistema berri honen azalpenekin esku-orriak banatuko dira datozen egunetan.

kirol astea argazkitan

Bideo emanaldia, erakusketa, hitzaldia, pilota partidak, gaur kros-a... ekitaldiz jositakoa izan da 2014ko kirol astea. Argazki bidez jaso ditugu ekitaldi nagusienak.



Arkaitz Astiazaranek Euskal Herriko txoko ederrenen bideoa aurkeztu zuen.



Karlos Diez zizurkildarra mendien handitasunaz aritu zen



"Antartika urtzen" erakusketa aste osoan izan zen ikusgai



Hilaren 14an, txikieneko jokoak egin zituzten Intxaur Frontoian



Eneko Garin eta Aitziber Ibarbia, 2013ko Gau Kroseko irabazleak



Abenduaren 15ean, pilota partidaren ostean, omenaldia jaso zuen hainbat kirolarik

PELLO JOXE ARANBURU



“Euskara oraindik ez dago seguru”

Maizpide euskaltegitik Hernandorena Kultur Taldera, eta hortik Zizurkilera

Alkizan jaioa, Goierriin makina bat urte egina, eta egun Zizurkilen bizidena. Nondarra da Pello Joxe Aranburu?

Ez dut zalantzarik horretan. Alkizarra naiz.

Duela zazpi urte etorri zinen Lazkaotik. Zergatik Zizurkilera?

Zortzi senide gara, eta denak bizi dira Villabona, Andoain edo Alkizan. Familiaren babesera etorri ginen hortaz. Eta Zizurkilera, bereziki, trenaren gertutasunagatik.

Eta egun jubilatua badago ere, ogibidez nola aurkeztuko genuke Pello Joxe?

Apaiz langilea eta idazle ikertzailea.

1961ean amaitu zenituen apaiz ikasketak. Apaiztegitik Lazkaoko Maizpide Euskaltegira egin zenuen salto. Nola eman zenuen jauzi hori?

1962an apaiz joan nintzen Goierriko Itsasora. Han lau urtez egon nintzen apaiz eta 66an fabrika batean hasi nintzen lanean. 74an lantoki hau utzi eta beste batean hasi

nintzen, Beasainen. Ordu-rako Lazkaon jarri ginen bizitzen. Artean, apaiz langileen mugimendua puri-purian zegoen. Makina bat apaizek utzi zuen eliza Burgosko prozesuaren urte haietan. 75an, Franko hil zen urtean AEK-ko gau eskoletan hasi nintzen. Orduan, Dionisio Amundarain, Iñaki Larrañaga eta jende honek, esan zidan “utzi zak fabrika hori eta etorri hadi gurekin euskaltegira”. 80. urte inguruan lehenengo barnetegiak hasi ziren antolatzen Lazkaon. Hor hasi nintzen klaseak ematen fabrikako lanak utzita.

Maizpideko sortzailetako bat, irakasle aritua, jubilatua aurreko urteetan zuzendari ere bai... Askok aldatu al da euskaltegira hurbiltzen den jendearen profila?

Askok. Guk antolatzen genituen barnetegieta- ra nafar pila etortzen zen euskara ikastera. Oso normalean zen, hilabeteko oporrak barnetegian euskara ikasten pasatzea. Jendeak sentitzen zuen euskal- lanen. 74an lantoki hau utzi eta beste batean hasi

siki, lanpostu bat lortzea- gatik ikasten du jendeak euskara.

Euskararen bilakaeraz zer hausnarketa egiten duzu?

Alor askotan urrats sendoak eman ditu euskarak: hezkuntzan, literaturan, hiztegitan, bestela- ko alor teknikoetan... 70. hamarkadan baino jende gehiagok daki euskaraz gaur egun. Hala ere, eus- kara oraindik ez dago se- gura, erabilera urriagatik, eta alboan ditugun hiz- kuntza erraldoiengatik.

Eta euskara Zizurkilen?

Adibide bat emango dut: Ni Ugaren bizi naiz. Iritsi eta segituan toka- tu zitzaidan ezkaratzeko administradore izatea. Oharrak eta deialdiak bi hizkuntzatan idazten ni- tuen. Geroztik izan diren administrazioaileek erdara hutsean jarri dituzte. Dena den, kontziente naiz eus- kararen panorama ez dela Ugarekoa ez Zizurkil Goian eta ezta Elbarrenako beste zonalde batzuetan ere.

Alor historiko eta etno- grafikoan ikerlan ugari

plazaratu dituzu. Nondik nora hasi zinen bide hau urratzen?

Jon Apalategi ataunda- rrak esan zidan aurrena nire etxea aztertze- ko, gero herria, eta gero bizi naizen giroa. Bide horixe egin dut nik.

Herrira etorri, Teodoro Hernandorena Kultur Taldeko kide zaitugu. Nola azalduko zenie- ke zizurkildarrei bertan egiten duzuen lana?

Proiektu asko ditugu es- kuarteetan. Bat esatearren Elbarrena auzoaren sorre- ra ari gara ikertzen: trena, Fraisoro, Pesus, Teodo- sio... Informazio pila bat dugu bilduta. Gazte jen- dea gerturatuko balitz...

Esaiguzu...

Zizurkilgo txoko kuttun bat: Egarrri taberna

Zizurkilgo pertsonaia bat: Pedro Mari Otaño.

Zer botatzen duzu fal- tan? Goia eta behea herri bat izatea.

Eta zer soberan? Zaborra lurrean.



Zizurkilgo Udala

Plaza Berri Aldizkaria
Herritarren Parte Hartze
eta Komunikazio Batzordea.

Lege-gordailua:
SS-1118-2011

Harremanetarako:
plazaberri.zizurkil@gmail.com
www.zizurkil.com

Zizurkilgo Udala,
Teodoro Hernandorena 6,
20.159 Zizurkil.
Tel. 943-691012
Fax 943-693200.

Udal Bulegoak, Aurrera Plaza 3,
20.159 Zizurkil.
Harrera Orokorra
Tel. 943-693066
Kultura, Euskara, Hezkuntza,
Gazteria y Kirola Saila
Tel. 943692495
Fax 943-693674.